



JAUREGIKO KONTUAK, BETIERE, MOTEL

Barrundiako udalean badira aurrera egiten ez duten zenbait gai, gehiegi luzatzen direnak, alegia. Horietako batzuen kasuan, zaila da ulertzea nola atzeratu diren horrenbeste.

Gauzek aurrera egitea edo atzeratzea borondate kontua izaten da gehienetan. Ondoren aipatzen ditugun kasuetan "udal-makineria" ez doa abiadura egokian:

-Barrundiako **bide-bazterretako sastrakak kentzeko** erabakia hartu ondoren, 3.000 euroko partida bat onartu zen 2008ko urrian. Garbiketa-lanak negurako utzi ziren, egokiagoa zela irizita, baina oraindik ez dira egin.

-2007ko maiatzean, bai ezker abertzalearen herri-programan, bai EAJk hauteskundeen aurretik banatutako panfletoan, **udalaren web orria egitea** proposatu zen. Orri horren domeinuaren izena - www.barrundia.net- 2008ko irailetik dakigu, baina, gaur egun, 2 urte igaro ondoren, ez dago oraindik web orririk.

-2007ko abenduan, 2008ko aurrekontuak onartu zirenean, partida bat gorde zen **etxebizitza-beharrei buruzko inkesta bat egiteko**. Inkesta hori lehenengo urratsa izango litzateke udalak etxebizitza-politika egiten has dadin (gainera, Barrundia udalerrri txikia izanik, hobe litzateke etxebizitza-beharren datu erreal guztiak jasotzen dituen errolda bat izatea). Baina oraindik ez da egin, nahiz eta sarritan galdetu dugun horren inguruan. Kontu hau are deigarriagoa da, zeren eta 2009ko aurrekontuetan ere, partida bat gorde zen inkesta egiteko.

Buletin honen edukiak:

JAUREGIKO KONTUAK, BETIERE, MOTEL	Orr. 1,2
JOAN DEN MARTXOAREN 1EKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK	Orr. 2,3
UDAL INFORMAZIOA	Orr. 4,5
ALDAKETAPOLITIKO ETA SOZIALAREN ALDE, EKAINAREN 7AN BOZKA INICIATIVA INTERNACIONALISTA!	Orr. 6

aumategi@yahoo.es

-**Hizkuntza-normalkuntzako teknikari** berriaren kontratazioa ere urte-hasieran egin behar zen, baina ez da egin oraindik. Gai honetan gestioak Aguraingo Koadrilak egiten dituen arren, azkarrago joan beharko litzateke, izan ere, Udalaren Euskara Plana onartu ondoren da beharrezkoen, hain justu, teknikari hori.

-2007ko abuztuaren 16an, osoko bilkuran planteatu zen **23. aerosorgailuaren kanonari** gordailatutako diruak sortzen dituen interesak eranstea. 2008ko abuztuaren berrir planteatu zen gai berbera. Erraza dirudien gai hau 2009ko apirilaren lehen onartu zen azkenean. Aerosorgailu honen kanona udal-diruzaintzan gordailatzen da urtero, Hermuako Kontzejua- ren eta Ozaetabaso Erkidegoaren ondasunen arteko mugak zehazten diren arte.

-Zentral eolikotik jasotzen den **afektazio-kanonari** dagokionez, udalak bi urte daramatza zain, Eólicas de Euskadik kanon horren arrazoia eman dezan. Kontua da kanon hori, aitortzen den bezala, "beste jabe batzuei emandako baldintza ekonomiko hobekin parekatzeko" dela. Deigarria da, beraz, EAJko taldekoek gai honetan izan duten "pazientzia",



Iduia Jauregiko lanak

baina are deigarriagoa da Eólicas-en erantzunaren zain egon behar dela esatea, gero baloratzeko Araban ordaintzen dena Gipuzkoan ordaintzen denarekin parekatu dadila eskatu behar den ala ez.

Horiek dira aurrera modu egokian egiten ez duten gaien adibide batzuk. Beste aldean, aurrera bizi doan eta baliabide ekonomiko eta pertsonal gehien hartzen dituen obra Iduia Jauregikoa da. Kasu horretan esan daiteke **Iduia Jauregiko kontuak ez doazela motel...** baizik eta ondo.

JOAN DEN MARTXOAREN 1EKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK

Euskal Autonomia Erkidegoan Legebiltzar- rarerako azken hauteskundeak ez ditugu berehalakoan ahaztuko; izan ere, Patxi López lehendakari izanda, gauzak ez dira lehen- goak izango. Orain, Ezker Abertzalearen bazterketaren ondoren, gure Nazioa onartzen ez dutenek elkar hartu dute gure herrialde-aren alde honetako boterea eskuratzeko. Eta hori guztia ilegalizazioari esker.

Hau guztia egin ondoren, lehen beste alde batera begiratu zuten alderdi batzuen kexak ditugu (EAJrena bereziki), lortu nahi ez zutena lortu ez zutelako; eurak izan baitziren Ezker Abertzaleari apartheid politikoa ezarri

zitzeanean beste alde batera begiratu eta ezer gertatu izan ez balitz bezala jokatu zutenak. Orain, boterea beste batzuen esku utzi behar izan dutenean, honakoa demokrazia ez dela esan eta esan ari dira eta gobernua jarri direnek ez dutela gizartearen gehiengo- a islatzen.

Baina ez dute deus esaten euren alderdiak, Urkabustaiz eta Ondarroa bezalako beste hainbat udaletan, herriaren gehiengoak nahi duena errespetatu ez eta boterea euren esku hartzen duenean. Horri hipokresia deritzo. Eta, egun, atzo goizean ereindakoa ari dira jasotzen.

Barrundiako emaitzei dagokienez, duela lau urteko parte hartzearekin alderatuz, abstentzioak %10 egin du gora. Ezker Abertzalearen aldeko bozka, ordea, bazterketa eta traba guztiak kontuan hartuz, eta aurretik parlamentariak lortzeko bozka horrek ez

zuela balio izango jakinda, %13 baino handiagoa izan da.

Gainera, Aralarrek igoera nabarmena izan zuen, EAEn bertan baino dezente handiagoa, EAJ alderdiak, berriz, ez du % 40ko langa gainditu, jokoan asko izan arren.

BARRUNDIA E.A.E.ko Parlamenturako Hauteskundeak	2005		2009	
	BOTOAK	ehunekoak	BOTOAK	ehunekoak
EAJ	213	%45'91	167	%39'47
EZKER ABERTZALEA	74(EHAK)	%15'95	57(D3M)	%13'47
PSE-PSOE	54	%11'64	59	%13'94
PP	69	%14'87	45	%10'63
EUSKO ALKARTASUNA	[EAJrekin koalizioan]	-	17	%4'01
EZKER BATUA	29	%6'25	17	%4'01
ARALAR	12	%2'59	47	%11'11
BERDEAK	3	%0'65	6	%1'41
UpyD			8	%1'89
Unidad Alavesa	9	%1'94		
BALIOZKO BOTOAK	464	-	423	-
ZURIAK+BALIOGABEAK	4	-	5	-
ABSTENTZIOA	179	%27'66	255	%37'33
EMANDAKO BOTOAK	468	%72'33	428	%62'66
HAUTESLEAK	647		683	



UDAL INFORMAZIOA

Diruzaintzako geldikina

Beste batzuetan hitz egin dugun diruzaintzako geldikina “fondo likidoa, gehi kobratzeko zain dauden eskubideak, ken ordaintzeke dauden beharrak” formularekin laburbildu dezakegu. Hau da, Udal baten aurrekontuetan aurreikusia ez dagoen dirua da, gastuen aurrekontuen hasierako kredituak ezin baitira diru honekin finantzatu. Kontuen “superabita” litzateke hau.

Barrundiako Udalean 2008 urtearen bukaeran superabita 572.482 €koa zen. 2007an 492.604 €koa, 2006an 544.556 €koa eta aurreko urteetan 300.000 €ingurukoa.

Diru hau neurri batean aurrekontuan txertatuz gasta daiteke, aurreikusi gabeko gastuei aurre egiteko. Baina, datu hauek agerian uzten dute gure udalak ez duela aitzakiarik gastu sozialean eta gure herriek behar dituzten inbertsioetara dirua bideratzeko. Hau da, Gizarte Laguntzaren Zerbitzua hobetzeko bitarteko gehiago behar bada diru hau horretarako erabili beharko litzateke; Barrundiako herrietan inbertsioak egin behar badira ez dago aitzakiarik ez erabiltzeko.

Barrundiako Kontzejuentzako Ekarpinak

Barrundiako 13 Kontzejuen artean 200.000 € banatuko dira, Udaleko Diruzaintza Geldikinetik datozenak. Ekarpin hau bi urteren buruan gure herrietan beharrezkoak izango diren inbertsioetarako erabiliko da.

Zalantzarik gabe ekarpina positiboa da, nahiz eta motz geratzen den Barrundiako herri batzuen beharrei erreparatzen badiegu. Honez gain, Udaleko “ahalegin ekonomikoa” ez da horren handia izango geldikin hau murriztea komeni baitzaio. Izan ere, Iduia Jauregiko obraren finantzaketarako geldikinaren erdia

bideratzera behartzen dute. Horrekin batera, FOFEL deritzon funtsetik eratorritako finantzaketaren galera “Tokiko Finantzaketarako Estatu Funtsa”ri dagokion diruarekin gainditzen da (Kontzejuak, ordea, ez daude egoera berdinean).

Gipuzkoako mugaren inguruko epaia

Apirilean Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenak Barrundiako Udalaren aldeko epaia ebatzi zuen. Horrelako berririk espero ez zen arren, positiboa da Barrundiarentzat. Denbora asko pasa ondoren eta aurretik hainbat helegite kontutan hartu ez ziren arren, ebazpen honek Barrundiako Udalari arrazoia ematen dio eta Eusko Jaurlaritza behartzen du Barrundia eta Eskoriatza arteko muga berriro ere zehazten hastera. Hortaz, zentral eolikoarekin erlazionatutako guztiak zeresana ematen jarraitzen du.

Modernizazioa

Azken urteotan berrikuntza teknologikoen testigu izan gara, lehen ezinezko ziren hainbat gauza orain posible direlarik. Teknologia berriek gure etxeko ordenagailuaren bidez administrazioarekin harremanetan jartzea ahalbidetzen digute zerbitzu telematikoak erabiliz. Esate baterako, denbora gutxian udal bulegoetara jo behar izan gabe kontsultak, izapideak, errolda agiriak zein beste motatako eskaerak egin ahal izango dira. Era berean, udalaren eta beste edozein administrazioaren arteko harremanean eragina izango du.

Herritarrei erraztasunak emateko onartutako legeak gure udalean martxan jartzen hasi behar dira berandu baino lehenago.

Horregatik komenigarria da gure udala eta berau osatzen duten guztiak teknologia berrietara egokitzea eta modernizatzea, atzean geratu gabe.

Osoko bilkuren maiztasuna eta bestelakoak

Udal gobernuko kideen jarrerek bere hortan jarraitzen dute. Penagarria da, baina erabaki justifikaezinak hartzen dira gehiengo absolutuan oinarrituta. Berriki osoko bilkuren maiztasuna aldatzea erabaki dute, hilabete eta erdian behin izatek hiru hilabete behin izatera. Honek azalpen erraza du: udalean egiten dena kontrolatu ahal izatea ekidin nahi dute eta bide batez, oposizio taldea izorratzen badute hobeto.

Jarrera aldaketa posible zela uste genuen, orain zalantzan jartzen dugu.



Aldaketa politiko eta sozialaren alde, ekainaren 7an bozka Iniciativa Internacionalista!

Egoera zaila bizi du herri honek. Espainiar estatuaren errepresio, ilegalizazio eta apartheid estrategiak independentismoaren aurka, errealitate politiko eta sozialaren argazki trukatu eta manipulatu ahalbidetu du. Gasteizko Parlamentuaren osaketa berriak ezin du estali herri honetan sakoneko aldaketaren alde gehiengo zabal bat dagoela. Eskenatoki demokratiko baten bitartez, Estatuetik benetako apurketa demokratikoa ahalbideratuko duen gehiengo bat dagoela, eta krisi egoera honetan, non euskal langileriaren eskubideak sistematikoki zapalduak izaten ari diren, beste eredu ekonomiko eta sozial baten aldeko apustua egiten duen gehiengo herritarra ere existitzen dela.

Baina gehiengo hori gorpuztu egin behar da. Egun dispersatuak dauden indar soberanista-intependentista guztiak elkartu egin behar dira. Elkarlanaren bitartez, herri hau eskenatoki demokratiko batetara eramango duen lan lerro eraginkor bat burutu beharra dago, hori bait da egoera politikoa desblokeatzeko bide bakarra.

Maiatzaren 21eko Greba Orokorrekin aurrerapausu garrantzitsu bat eman zuen herri honek. Milaka herritarrek beste eredu sozio-ekonomiko baten aldeko mobilizazio erraldoian hartu zuten parte, euskal langileriaren duintasuna eta mobilizazio gaitasuna agerian gelditu ziren. Baina pausu garrantzitsu hau ez da nahikoa, bide horretan sakondu beharra dago.

Ekainaren 7an Europako hauteskundeak ditugu. Oraingoan ere, espainiar estatua-zen izaera antidemokratikoa azalarazi den honetan, demokrazian eta herri eskubideetan oinarritutako bozka emateko aukera zabaldu zaigu. Europa eta nazioarteko komunitatearen aurrean, bere eskubideen alde borrokatzen duen herri bat dagoela demostratu nahi dugu: Euskal Herria. Gure herriaren hitza ozen eraman nahi dugu Europara, autodeterminazio eskubidea bertan defendatu nahi dugu. Horregatik, ekainaren 7an, Iniciativa Internacionalista bozkatzerantz animatu nahi zaitugu.

Prozesu demokratiko baten alde, beste eredu sozio-ekonomiko baten alde, finean, aldaketa politiko eta sozialaren alde, bozka Iniciativa Internacionalista!

